

Euskal historiaren historiografiaz

Rafael López Atxurra

Euskaldunei buruzko idatzizko *lehen erreferentziak* Kristo aurreko lehen mendean egiten dira eta greziar/erromatar idazleak izango dira, hain zuzen ere, lehen aipamen horiek egingo dituztenak. Strabon, Ptolomeo, Plineo, etab. alegia. Ez dugu ahaztu behar historia greziarren artean (V. mendean K.a. Herodoto) sortu zenik:

Aipatu idazle horiei esker, bada erromatar garaiko euskal leinuen berri dakigu, hau da, non kokatzen ziren, zeintzuk ziren beraien ohiturak, bizimoduak, antolamendu soziala, etab.¹ Euskal leinuak erromatar zibilizazioaren ikuspegitik aztertuak zirenez gero barbari edo basatien munduan sartzen ziren.

Iberiar penintsulako iparraldean kokatzen den herri honetaz aritzen zirenean, goi-ertaroko visigotiar kronikek eta arabiar kronikek basatitasun hori azpimarratu egiten zuten eta beste hainbeste egin zuen XII. mendean Aimeric Picaud erromesak (Erromesen gidaliburua-Codex Calistinus)².

Erdi aroa

XI. mendetik aurrera hiriak eraikitzeke politika bultzatu bazen ere, ez zirudien kultura idatziarentzat egoera egokirik zenik oraindik, hau da, jaun, eliz eta erret botearen inguruan sortzen ziren dokumentuek euskal jendearen berri ematen bazuten ere, Euskal Herriaren barnean sortutako produkzio historiografikorik ia XV. menderarte ez bait zen ezagutu. Leon, Gaztela, eta Aragoako erresumek eta Kataluniako printzerriak, alderantziz, tradizio historiografiko bat ezagutu zuten³ eta tradizio horren barnean kokatu behar da D. Rodrigo Ximenez Radakoa, nafarra (1170-1247), Toledoko artzapezpiku izan zena eta "Historia gothica"ren egilea⁴.

Annales edo Kronika izenarekin egiten ziren historiak, batez ere, erregeez aritzen ziren, ez da harritzekoa bada, euskal lurraldeen artean goren maila politikoa lortu zuena *Nafarroako erresuma* izan bazen, lehen erreferentzia historiografikoak han aurkitzea. Dena den, XIV. mendean, frai Garzia Eugikoa (Baionako apezpikua eta Nafarroako Carlos III.aren konfesoia izan zena) Nafarroako historiak aritu zenean ez zuen berorretaz soilik idatzi «Chronica de las fechas subcedidas en España desde sus primeros señores hasta el rey Alfonso XI» izenburuak adierazten duenari buruz idatzi bait zuen batez ere.

Beraz, XV. menderarte Nafarroak ez du izango historiografia berezirik, Nafarroako erresuma (hasieran Iruñeko erresuma deritzana) IX. mendean sortua izan arren.

XV. mende horren hasierakoak dira "Genealogia regum Navarrae", Pedro Valentziakoak idatzitako Nafarroaren historia edo Garci Lopez Orreagakok idatzitako kronika, kristautasunaren sarerarekin hasten dena.

Aipatu datu labur hauetan zera ikus genezake: a) Nafarroako erresumari zegokion historia sortzen ari zela; b) histori gaiari ordena emateko lehen era, genealogia zela eta d) kristautasuna oinarrizko abiapuntua zela (erreferentzi kronologikoa ezarriz gain, kristautasunak historiari zentzua ematen zion).

Euskal Herriaren *mendebaldeko lurraldeak* berriz, XI. mendeaz gero jaur egiturak ezagu zituzten (Arabian jadanik IX. mendetik aurrera); XII. mendetik XIV. menderarte, gorabehera handiekin Nafarroako eta Gaztelako erresumen eragin barrutian zi-

ren; XIV-XV. mendeetan zehar giro egongaitza ezagutu zuten (ahaide nagusien arteko borrokak), bazegoen beraz, kontatzeko gaia, produkzio historiografikoa, emaitza ordea berankorra izan zen.

Dena den, gertakizun eragingarriak edo adierazgarriak herriaren memoria kolektiboan gorde ziren eta ahozko tradizioaren birtartez besterenganatu egin ziren.

Honela bada, hasiera batean, historiaren berri kantuek emango digute; historia itxura poetikoz agertuko da⁵. Horra hor, esate baterako, Beotibarko batailaren kantua (1321), Nafarroa eta Gipuzkoarren arteko tirabira azaltzen duena; Arrasate erretzearen kantuak (1448), ahaide nagusien arteko borroka agertzen duena, etab. gero XVI eta XVII. mendeetan idatziz jaso zirenak⁶.

XV. mendean Euskal Herriak giro egongaitza ezagutu bazuen ere (eta horren ispilu ahaide nagusien gerla dugu), ordenuaren ildotik ere egin ziren gauzak, horra hor, ahozko tradizioaren bidez gordetzen ziren herriaren usuario eta ohituren biltze-lana. Foruetan, hau da, prosa juridikoan gauzatu zena⁷.

Foruek, antolaketa publikoaz eta egunero sor zitezkeen arazo eta gatazken administrazioaz informazioa emateaz gain, eta herriak egunero errepikatzen zuen historia ispilatzen zuten heinean, historiaren erreferentzia egonkorra ematen digute, hau da, une luzetako estrukturetan oinarritzen dena (herentzi sistema kasu).

Foruek bada, historia kolektiboa, anonimoa jasotzen zuten, edo hobeki esanda, herriaren eguneroko portaerak arautzen zituen estruktura erreferentziala eskaintzen zuten. Dena den, argi dagoe-na zera da, prosa honetan asmo eta intentzio historikorik agertzen ez bada ere, errealtatea antolatzeko, arautzeko bidea izateaz gain, errealtate sozial hori era sistematiko batez azaltzeko modua izan zela badakigu, eguneroko problemen inguruan egin zena (ekonomia, giza harremanak, antolakuntzaren arazoak) eta ez kronologia jarraituz.

Izen propioa dutenen historia ere, hau da elitearen historia (erregeak, jauntxoak), mende honetan finkatu zen, errealtate honen azalpena eta antolaketa, era honetara egiten zelarik: prosa historikoa (narrazioa) eta kronologia erabiliz.

Historia idatziaren sortze-prozesuan data bat aipatzekotan, 1454. urtea mentatu beharko genuke, hain zuzen ere data honetan

agertzen bait dira aurreko esaldian aipatu elitearen lehen historiak. Horra hor, Bianako printzearen "Crónica de los Reyes de Navarra" edo Lope García de Salazarren "Crónica de las siete casas de Vizcaya y Castilla".

Historia eliteaz aritzen bada, Erdi Aroko historilariak ere, elite horren barnean koka ditzakegu: elizgizonak (fray García Eugiko, apezpikua), gorteko administrariak (García López Orreagako, erresumako diruzaina) eta propioki elitekoak direnak: printzeak (Bianakoa) eta leinukideak (Lope García de Salazar). Azken hauek, neurri handi batean, beraien historia garaikidearen lekuko eta, areago oraindik, protagonista direlarik.

Ildo honetatik jarraituz Lope GARCIA DE SALAZAREN *Las Bienandanzas e Fortunas* (1471-1475)⁸ liburuaren garrantzia azpimarratu beharra dago.

Lope García, ahaide nagusien arteko borrokaren lekuko eta partehartzaile izanez gain, kontzientzia historikoaz jokatu zuen idazlea dugu. Jauntxo hau memoria historikoak zuen garrantziaz ohartu zen. Hona hemen gai honetaz zer esaten zuen: «por este libro fallen memoria de todos estos fechos... porque no quedasen olvydadas por siempre». Honez gain, historiari erabilera praktikoa ikusten dio («porque sepan dar razón en estas fechas quando necesario les fuere»).

Bere filosofia hau bada, bere historilari egitekoan razionaltasun-zentzua ikusten zaio, informazio historikoen multzoan erizpide batzuren arabera egiten bait ditu bere hautaketak: «fare apartamiento de todas las cosas principales».

Bestalde, eskaintzen duen informazio historikoaren erakuntza kronologikoa ez bada ere (Euskal Herriaz ari den zatian behintzat) erakuntza hori, lurraldeen eta leinuen inguruan egiten da. Kontatzen duen historiaren haria berriz, ahaide nagusien arteko etsaikeria eta honek dakartzan ondorioen aipamena da.

Ahaideen arteko etsaikeria horretan partaide izan arren eta eragozpen honek idazlearengan duen eragina kontutan izanik (subjektibotasuna), bere asmoa errealitatea eta idatzi historikoaren arteko distantzia laburtzea izan zen, egia historikoa ardaztzat erabiliz. Lope García de Salazar-ek zioenez: «De las menguas que en este libro se fallaren o de palabras mal puestas... sea dada la culpa a my negligencia e no a my voluntad»⁹. Honela bada, helmuga egia eta zehaztasuna lortzea zen, azken emaitzak, puntu honi dagokionez, bere gorabeherak eduki harren.

Ohizko historiografiaren ezaugarriak

Erdi Aroan hasi eta Antzinako Erregimena bitartean egiten den historiografian, gorabehera horiek, eta hain zuzen ere gertaerak benetakoak ziren ala ez jomugatzat harturik, era honetara sailka daitezke:

a) hurbileko gertaerak ezagunak ziren heinean, eta, sarritan zuzeneko esperientziatik jasoak, zehatz eta mehatz azaltzen ziren, baina ala ere subjektibotasunaren arazoa ezin da ahaztu.

b) gertaera historikoak zuzeneko esperientziatik ezagutu beharrean bitarteko mundu bati esker, hau da, dokumentuen bidez ezagutuz gero, dokumentu-sorburu horien balioa frogatu egin behar zen, dokumentu horien barne- eta kanpo-kritika burutuz, horretarako analisi filologikoaren beharra nabaria zelarik, faltsukerrien egitekoa era honetara soilik lurrera bait zitekeen.

Dena den, analisi-mota hau historia lanetan, XVII-XVIII. menderarte finkatu ez zenez, sarritan izpiritu kritikoa arlo batzutan bakarrik aplikatzen zen, beste batzutan ordea, sineskortasuna ere nabaria izanik.

c) gertaerak urrunean kokatzen zirenean eta dokumentuen eskasia nabaria zenean errealitateak zuen hutsune hori betetzeko asmoz, istorioak eta mitoak sortzen ziren urruneko iluntasun hori honela argitu nahirik.

Hauek ziren bada, Lope García Salazar-en egitekoak zituen mugak, baina euskal historiografian aipatu ezaugarri hauen iraupena oso berandurarte helduko da.

Historilari honek bere ihardueran izan zituen akatsak aztertu ondoren ikus ditzagun orain zein gaiz aritu zen. Topikoetara jotzen badugu, errazena Lope García-ren aztergai nagusia gerren edo batailen historia kontatzea dela esatea litzateke. Baina, egia esan, historiaren azalean gertatzen ziren bataila horiek ispilatzen zutena, sustraituta zeuden indar sozialen kontrako interesen gatazka zen. Halaber, lehen argi gelditu da, informazio historikoa antolatzeke izan zuen era, ez zela kronologiaren ildotik abiatu, leinuen esparrutik baino.

Beraz, leinuen historiaz ari bada, erakuntza sozialaz idazten ari da, eta leinu horiek eliteak diren heinean, elitearen historia soziala¹⁰ eta boterearen historia egiten ari da eta aldi berean, nor gehia-

go izatearen ondorioz ("valer más") gatazkak, gerra ekonomikoak, odol-loturak, portaera sozialak, kode etikoak, etab. isladatuko ditu.

Bestalde, Lope García de Salazar-ek erreferentziatzat duen esparru geografikoa kontutan hartzen badugu, zera esan genezake. Berak duen lurraldetasunaren kontzeptua erdi arokoa dela, hau da, guk gaur egun ezagutzen dugun Euskal Herriaz ez da arituko, bere erreferentziak beste batzuk bait dira. Esate baterako, bailarak (Mena, Losa, Valdegobia, Turtzioz, Karrantza, Somorrostro); kostaldea (Gaskuinatik Galizaraino heltzen dena); nortasun politikoa zuten lurraldeak (Bizkaiko jaurerria, Araba, Gipuzkoa)¹¹ eta, azkenik, ertaroko espazioaren antolamendurako hain garrantzitsuak izan ziren leinuak eta beraien orubeak.

Bere geografi esparrua bada, hain ongi ezagutzen zuen hurbileko Enkarterri eta inguruko lurraldeetatik hasi eta urruneko Galizaraino heltzen zen.

Penintsulako historiaz aritzen denean (13-19 libururarte) denboraren esparrua ere zabalduz joango da, bere azken asmoa munduaren sorreratik hasi eta historia unibertsala egitea delarik (lehenengo 12 liburuak). Beraz, Lope García de Salazar euskal historilarien artean lehen historia unibertsala burutu duen historilaria dugu.

Azken ildo honetatik jarraituko du ehun urte beranduago (1571) Esteban de GARIBAYk ere *Las XL libros del compendio historial de las chronicas y universal historia de todos los reinos de España* (Amberes, 1571) idazten duenean. Hasierako denborak mitoz eta istorioz betetzen baditu ere Garibayen garrantzia euskal historiografiaren barnean Erdi Aroko nafar historia aztertzean datza.

Aurreko lerroetan euskal historiografiaren hasierak azaltzerakoan eta Lope García de Salazar-i buruz aritzerakoan, euskal historiografiaren ezaugarriez ere ihardun dugu, gaingiroki baino ez bada ere. Eta azalpenari koherentzia emateko asmoz hari honi helduko diogu; historilarien lanen berri zehatza ematea astunegia izateaz aparte, ilunegi bihurtzeko arriskua bait dauka.

Beraz, lehenengo eta behin, zera esan dezakegu: euskal historiografiaren barnean, hiru etapa bereiz daitezkeela:

1) XV. mendetik XVIII. mendearen amaierarte hedatzen dena: garai aurrezientifiko-mitikoa.

2) XIX. mendetik XX. mendearen hasierarte (1936). Iragapen-garaia. Zientifikotasunaren ildotik doana.

3) XX. mendea: a) gerra zibiletik 1970. hamarkadararte doana.
b) 1970etik gaur egunerartekoa.

Historia mitikoa (XVI-XVIII. mendeak)

Mende horietako historiografiari buruz, bi alde ukitu nahi ditugu batipat: berorren ezaugarriak eta lan-prozedurak. Ezaugarriak hauexek dira:

1) Euskal Historikariek Euskal Herria bere osotasunean ez zutela aztertzen, lurraldetasun-kontzeptua eta antolakuntza politikoa lurralde historikoetara mugatzen bait zen (Bizkaiko Jaurreria, Gipuzkoa, Nafarroako Erresuma). Dena den, erreferentzia orokorragoak ere erabiltzen zituzten, alegia, hizkuntz kontzientzia adierazten zuen euskal erkidetasuna¹², lurralde historikoen gainetik hedatzen ziren leinuen odol-loturak¹³, eta kantabriartasuna¹⁴.

2) Mende hauetan zehar planteatzen ziren problema historiografikoak, batez ere, hauek ziren: Euskal Herriaren eta euskararen jatorria ezagutzea¹⁵. Problema honen irtenbidea garai honetan tibalismoaren mitoa izan zen¹⁶.

3) Aurrekoarekin lotuta zeuden beste funtsezko arazoak hauek ziren:

a) Euskal lurraldeak inoiz inoren menpean ez direla egon. Baieztapen hau frogatzeko kantabriartasunaren mitoa aipatzen zen eta, halaber, euskararen iraupena¹⁷.

b) Kaparetasun kolektiboa euskal lurraldeen ezaugarria izan dela frogatzea. Azken finean baieztapen hauen azpitik adierazi edo frogatu nahi zena zera zen: Euskal Herria jatorrizko nortasun berezia duen herria dela.

4) Lan-prozeduraren ezugarriak adierazteko zera esan genezake: aurrean aipatu dugun guzti hori frogatzeko *historia mitikoa* egiten zela¹⁸, hau da, argudioei indarra emateko asmoz jatorrieta-ko denboretara jotzen zen eta dokumentuen froga faltan testigantza hutsune hori istorioz betetzen zen. Baina ez edonolako istorioak.

Garai honetako euskal historiografia kristau-tradizioaren barnean kokatzen denez, eta giza arrazoian oinarritzen den metodo zientifikoa oraindik finkatzeke zegoenez, agintea zuen sorburu sakratu batera jo beharra zegoen, hau da, Bibliara. Era honetan, Euskal historiaren kronologiak Bibliak dioenarekin elkartzuz, eta euskal leinuen eta euskararen jatorria Biblian agertzen den pertsonaia batengan (Tubalengan) oinarrituz, ohizko euskal historiografiak behar zuen ziurtasuna aurkitzen du. Zalantzan ipini ez daitekeen testu sakratu baten agintearengan.

Bestalde, eta lan-prozedurarekin jarraituz, garai hauetako historilariak aurreko historilariengandik jasotako datuak eta esanak kritikarik gabe onartzen zituzten. Alegia, greziar/erromatar garai-ko edo kristautasunaren tradizioan kokatzen diren historilarien berri jasotzerakoan, jatorrietako testuetara jotze honek zera adierazten digu: egia tradizioan eta lehenaldian oinarritzen zela eta ez analisi kritikoan.

5) Erdi Aroan finkatzen diren historia egiteko moldeek (kronika eta genealogia) XVI eta XVII. mendeetan ere iraun egiten dute¹⁹.

6) Historilariak erabiltzen dituzten gaien artean, errege, jaun eta leinuetako buruzagien inguruko gertaerak dira aztergai nagusienak.

7) Goian aipatu ezaugarri horiek (mitoen erabilera, tradizioaren eragina, Bibliak ematen zuen agintea, etab.) sistema koherente bat osatzen zuten eta historia eraikitzeke eta lantzeko paradigma bihurtu zenez gero, hau izan zen aro foralean zehar landu zen historiografiak segitu zuen bidea²⁰.

Dena den, joera historiografiko honen nagusitasuna nabaria izan arren, XVII. mendetik aurrera, astiro-astiro, beste bide batzuk ere jorratuak izan ziren.

Euskal historilariak Euskal Herria, bere osotasunean ez zutela aztertzen lehen esan badugu ere, XVII. mendean jadanik, OIHENARTEren *Notitia utriusque Vasconiae tum Ibericae quam Aquitanicae*, 1638an argitaratu zen lehen euskal historia aurkitzen dugu. Eta ez dugu ahaztu behar garai honetako hizkuntza kulta latina zela eta Oihenarte bera ere hizkuntza honekin baliatu izan zela euskal historiaren berri emateko. Bestalde, izenburuak berak adierazten duenez Oihenarte-ren *Vasconia* ez da guk gaur egun ezagutzen dugun Euskal Herrira mugatzen, antzinako Basconia-

ren esparruan Akitania eta Pirinialdeko lurraldeak ere sartzen bait ziren.

Aipatu ildo honi jarraitu zioten Jean de BELAk (1748)²¹, Dom SARADOMek (1785)²², Juan Antonio de ZAMACOLAk (1818)²³, D'IHARCE BIDASSOUETek (1825)²⁴, Ernesto BOISLE-COMPTek (1836)²⁵, Joseph Agustin CHAHOk (1847)²⁶, BELSUNZEko Bizkondeak (1847)²⁷, CENAC MONCUCek (1853)²⁸, GARATEk (1869)²⁹, BLADEk (1869)³⁰ eta JAURGAI-Nek (1898-1902)³¹. Ikusten denez, autore gehienak iparraldekoak dira, Zamakola ezezik, eta berauek ematen duten baskoniar eta Pirinear ikuspegia, litekeena da berorien jatorrian oinarritzea.

Bestalde, Basconiari buruz aritzen ziren liburu hauek; batez ere, XIX. mendean argitaratzen dira, iparraldeko euskal lurraldeak Frantzia jakobinoan txertatuak daudenean, hegoaldeko foru-sistema gerla karlisten bidez eztabaidatzen ari den garaian eta Euskal Herrian, lehen aldiz, proiektu politiko autonomoak eta bateratuak burutzen ari diren unean (XVIII. mendean Larramendirekin hasita XIX. mendean Garat eta Eliorekin segitzen dutenak). Dena den, historiako liburu horietan, garaiko historiak baino garrantzi handiagoa dute jatorrietako arazoek, gehienetan ohizko mitoeak (kantabriartasunak, etab.) irauten dutelarik. Beraz, Euskal Herriaren nortasun berezia defendatzea da lan hauen abiapuntua³².

Baina ez dezagun ohizko paradigmen barnean gertatzen diren salbuespenen haria ahaztu. Paradigma horren ezaugarria kritikarik gabeko historia egitea bazen, XVI. mendean jadanik, Garibayrengan kasu, dokumentu-sorburuetara jotzeko joera ikusten dugu.

XVII. mendean European, *historia kritikoaren hastapenak* ezartzen dira, historiaren zientzi laguntzaileei esker (Diplomatika, Paleografia eta Kronologia). Era honetara, garai honetan oraindik artetzat jotzen den historia, zientziaren ildotik sartuko da, XIX. mendean finkatu zen historia erudituari hasiera emango diolarik.

Oraingo honetan ere, euskal historilarien artean Oihenarte idazlea dugu historia mitikoa kritikaren galbaheaz eralgitzen hasi zena. Oihenartek ez zituen aurreko historilarien esanak onartzen frogak aurkitu arte. Beraz, kantabriartasuna, basco-iberiartasuna, Jaun Zuriaren eta Arrigorriagako batailaren istorioak ez zituen onartu garai honetako historiografian lege izan arren. Dena den, garai honetako euskal historilarien artean kritika-salbuespena besterik ez zen izan³³.

Bestalde, historilariak historia egiterakoan erabiltzen zituzten gaiak gertaerak zirela eta gehien lantzen zen historia kronika eta genealogia zela esan badugu ere, XVIII. mendean beste era bateko historia egiten hasten da, historiako liburuetan gai berriak aztertzen direlarik: bizimoldeak, ohiturak, ekonomiaren deskribaketa, erakundeak, etab. Eta sarritan lana taiutzeko era, kronologia izan beharrean, gaia bera da. Hau, LARRAMENDIren *Corografía*-n (1756) eta ITURRIZAREN *Historia General de Vizcaya*-n (1793) argi ikus daiteke. Areago oraindik Larramendi-ren *Corografía de Guipúzcoa* izenburuan agertzen den *Corografía* hitza, deskribaketa esangura duena, historiarekin eta etnografiarekin harremanak dituen geografiaren atala da.

XVIII. mendean koiuntura politiko berri baten eraginez, Borboien politika zentralizatzailea hain zuzen ere, euskal historiografiak, giro berri horren ondorioz sortzen diren kezkek eta erantzunak jasotzen ditu. Ez dugu ahaztu behar bi matxinada eta Gipuzkoako independentziaren proiektua ezagutu ziren mende honetan erret boterea eta foru-sistemaren arteko tirabira eta distantzia, inoiz baino urrunago heldu zirela. Distantzia horren ondorioak aita Larramendik bere *Conferencias políticas*³⁴ idazlanean aztertu zituenean, Euskal Herriak zituen aukeren artean, euskal lurraldeen independentzia, "Provincias unidas del Pirineo" proiektu teorikoa, ere proposatzen du.

Honela bada, giro politiko honen ondorioz sortzen den historiografiak erabilera eta funtzioa politikoa eduki zituen. Sarritan, histori lanak erakunde foralen aginduz egin izan ziren³⁵ eta, halaber, gaztelako kontseiluaren zentsura zela medio debekatuak izan ziren³⁶. Honen ondorioz Historiako liburu batzuk argitaratzeko beste lurralde batera jo zen, LANDAZURIren *Historia del ilustre País vascongado* kasu edo bestela izen gabe argitaratu ziren FONTECHARen *Escudo de la más constante fe y lealtad* (1747) adibidez.

Garai honetan egiten diren historiak bada, ez dira jauntxoan eta leinuen kronikak eta genealogiak izango, lan historiko juridikoak baino, garaiko gizartean zalantzan ipintzen ziren ohizko foru-sistemaren defentsan burutuz. Garaiko euskal erakunde publikoaren defentsa hori egiteko historiatik, lehenetik, ateratako datuz, argudioz eta arrazoiz baliatzen ziren, orainaldiaren funtsa lehenaldian kokatuz. Hona hemen bada, euskal historiografiaren barnean hain hedaturik dagoen historiaren zentzu historizista.

Iragan-garaia (XIX. m. - 1939)

Historiografia mitikotik lan-metodo zientifikoetarako jauzia ez zen bapatean burutu; iragan-belaunaldi batzuk izan zituen. Iragan-garai hau XIX. mendean eta XX.ean 1939raino luzatu zen.

Aurretik aipatu lan-prozedura horiek bada, segitu egingo dute. Bestalde, Borboi-ek praktikatu izan duten politikarekin XIX. mendean pilatu diren tentsioak, monarkia absolututik estatu jakobino liberalera dagoen iraganbidearen auzian gauzatzen direnak, gerra karlistetan erabakitzen dira.

Baina, tirabira horiek produkzio historiografikoaren bidez gertatu zen gerra ideologikoan ere burutu izan ziren. Honela bada, *Konbentzioko gerra* ondoren euskal lurraldeek monarkiarekiko duten fideltasuna zalantzan ipintzen denean Godoyr-en politika ez da izango Foruak zuzen-zuzenean kentzea, foruen oinarri teorikoak zulatzea baino. Hari honi jarraituz egingo dira "Real Academia de la Historia" delakoaren lanak *Diccionario Geográfico-Histórico de España* (1802)³⁷ kasu, baina euskal lurralde, eta Errioxakoari buruzkoak soilik argitaratu ziren. LLORENTE kanonigoaren lana ere foruen aurkako ildo berean aurkitzen dugu: *Noticias históricas de las tres provincias vascongadas*, (1806-1808).

Foruen aurkako joera historiografikoaren aurrean, foruzaleak edo *foruen apologia* egiten dutenak ere aurkitzen ditugu. Hona hemen, eta Llorente-ren aurka bereziki doan Pedro NOVIA DE SALCEDOren *Defensa histórica, legislativa y económica del Señorío de Vizcaya y Provincias de Alava y Guipúzcoa* deitu liburua 1829an burutua eta Bilbon 1854ean argitaratua, edo, historiatik kanpo, maila apalago batean, ASTARLOAren *Apología de la lengua vascongada* (Madrid, 1803) "Diccionario Geográfico-Histórico"aren euskarari buruzko eritziak zuzendu nahian egin zena.

Honela bada, foru-sistema krisi-garaian sartzen den une honetan historilariak beren argudioak defendatzeko behar dituzten dokumentu-frogak bilatzen saiatzen dira, era honetara *historia eruditua*ren ildoak segitzen dutelarik³⁸. Polemika foralaren euskarri historiografiko bat erudizioa bada, bestea *lan historiko-juridikoak* lantzea izango da. Hala nola, ZUAZNABARren³⁹ eta MARI-CHALAR eta MANRIQUEren lanak⁴⁰.

Aipatu polemika foral hori, erakunde foral eta zentralaren artean hasi zena, polemika historiografikoarekin jarraitu zuena eta

karlistadetan zuzpertz zena, gero Madrileko gorteeek jaso izan zuten. Hemen, foruen kontra zeuden diputatuak Llorente-ren ideiak jasoz eta foruzaleek Novia de Salcedo-renei jarraituz burutu zituzten beren eztabaidak, sarritan, eztabaida horretan agertutako diskurtsu eta txostenak foileto gisa argitara emanaz⁴¹.

Karlistada beraiek ere mende honetan historiatuak izan ziren⁴², era honetara lehenaldiko argudioak alde batera utzirik, *garaiko historiak* bere lekua topatzen duelarik. XIX. mendea bidaiariena izan bada, ez zen Euskal Herria bidaiari horien asmoetatik kanpo gelditu, beharbada karlistadek Euskal Herriaren erakarkortasuna areagotu egin zuten. Horra hor, HUMBOLDT, CHAHO, HENNINGSEN, MANE Y FLAQUER eta abarren deskribaketak⁴³.

Bestalde, XIX. mendean zehar lurralde historiko bakoitzari buruz egiten diren historiak erudizioz beterik daude: YANGUAS Y MIRANDAREN lana Nafarroan⁴⁴, BECERRO DE BENGOA-rena Araban⁴⁵, GOROSABELena Gipuzkoan⁴⁶, LABAYRU-rena Bizkaian⁴⁷ eta HARISTOYrena Ipar Euskal Herrian⁴⁸. Sarritan, historilari hauen lanak entziklopedikoak bihurtzen dira. Probintziatoko historien alor honetan azpimarratzekoa da Juan Ignazio IZTUETAk 1847an idazten duen *Guipuzcoaco provincia-
ren condaira* historia lanen artean euskaraz egiten den lehen saioa delako.

Orain arte histori lanen esparrua probintzia izan bada bereziki, XIX. mendean erreferentzi puntua herrietako historia edo *tokiko historia* izango da⁴⁹. Alor berri honek XX. mendean ere fruitu sakonak emango ditu: ikus GUIARDen lana⁵⁰.

Bestalde, XIX. mende honen azken aldetik aurrera ikerkuntz lanei ekiten zaie *monografia historikoak* burutuz eta *gai berriak* jorratuz⁵¹ (ekonomia, gizartea, etab.); *historiaurrearen arloa* agertzen da, denboraren esparrua hedatzen delarik⁵².

Ikerkuntz lanetan aritzen diren historilarien artean, Teofilo GUIARD, Fidel SAGARMINAGA (Bizkaian), Carmelo ETXEGARAY (Gipuzkoan), Arturo CAMPION (Nafarroan) eta DUBARAT, DARANATZ eta BALASQUE (Iparraldean) aipa genitzake; sarritan, historilari hauen lanak aldizkarietan agertzen direlarik⁵³.

Euskal historiaren azterketa egiterakoan hiru eratako joerak agertzen dira: a) *liberala*, b) *foralista*, eta c) *nazionalista*. Batzuk (lehenak) Espainiako Estatuarekin loturak aurkitzera doaz⁵⁴ bes-

teak, aldiz, euskal erakundeen autonomia edo jabetasuna frogatzera zihoazen⁵⁵; azken finean, joera hauen azpitik historizismoa da nagusitzen dena.

Aurrean aipatu ezaugarri eta ikuspuntu horiek errepublika-garairarte segitu zuten.

Errepublika-garaiari dagokionez, Nazionalismoak indar berria hartzen duen heinean, berriro hasiko dira Euskal Herriari buruzko historiak idazten: Bernardino de ESTELLAREN *Historia Vasca* (1931) edo Estornes LASAREN *Historia del País Vasco* (1933) kasu; histori lan-hauetan oraindik, erakundeen historia eta gertaeren kronika nagusitzen direlarik.

Dena den, errepublika-garaian, gaur eguneko histori lanen aitzindari diren bi erreferentzia aipatuko ditut. "Yakintza" aldizkarian (1933-36) Ildefonso GURRUTXAGAK idatzitako artikulu bat "La matxinada de 1766 en Azpeitia. Sus causas y desarrollo", ohizko historia politikitik urruntzen dena historia sozialera eta totalera hurbilduz, eta Theodoro LEFEBVREAREN *Les modes de vie dans les Pyrenees atlantiques orientales* (Paris, 1933) Annales eskolaren geohistoriatik hurbil dagoena.

Baina gerra zibilak eta Diktadurak, bide hauek eskaini zitzaizkien fruituak berandutu egin dituzte. Ikus dezagun, bada, Diktadura-garaian zer gertatzen den.

Diktadura-garaia

Hiru ataletan banatuta emango da, hemen, lan honen azken parteari dagokiona. Diktadura tarteko zela, argitalpenen edizio-lekuak izan zuen garrantzirik ikerlan historiografikoari zegozkionetan, eta gogoan hartuko dugu baldintza hori. Orobat, klandestinitatearen testuinguruak izan zuen zerikusirik historilarien lanetan. Alde ezberdin horiei begira egingo dugu, beraz, sailkapena.

Erbestean argitaratutako lanak

Epealdi honetan, abertzale ikuspegitik idazten diren lan gehienak, *erbestean* argitaratzen dira, bai EKIN argitaletxearen ingu-

ruan, eta baita *Boletín Americano del Instituto de Estudios Vascos* delakoaren barnean ere.

Denbora honetan erbestean egiten den historia definitzerakotan, historia sinbolikoa dela esan genezake.

Hau da, hautatzen ziren gaiek zerikusi handia zuten Euskal Herriaren batasun eta nortasun politikoarekin; adibidez: ORTUETAREN *Sancho el Mayor Rey de los vascos* (1963) edo ESTORNES LASAREN *Eneko "Arista". Fundador del Reino de Pamplona y su época* (1959).

Halaber, atzerrian dauden historilari hauek, eredutzat har daitezkeen pertsonaia eta gertaerarik ospetsuenak erabiltzen dituzte, euskal gizarteari jarraibide historikoa eman nahian. Honen adierazgarriak dira, esate baterako, ARALAREK idatzitako liburu batzuren izenburuak, hala nola *Victoria de Munguía y reconciliación de oñacinos y gamboinos* (1949) etsaiaren aurka euskaldunen batasun politikoaren beharra adierazten duena, eta *El conde de Peñaflores y los caballeros de Azkoitia* (1942), "Ilustrazio"-garaiko loraldi kulturala eredutzat ipintzen duena, edo ESTORNES LASAREN *La Real Compañía Guipuzcoana de Navegación de Caracas* (1948). Kasu honek une ekonomiko loralditsu bat erreferentziatzen hartzen du. Azken liburu honen eskaintzan, esaldi adierazgarri hau agertzen da: "A los que marcan la senda del renacimiento vasco, dedica este trabajo"⁵⁶.

Euskal historia egiteko orduan, ez da barne-historiaren ikuspuntutik bakarrik egingo, kanpoko etsai edo kontrarioen arabera egiten den historiak ere garrantzi handia edukiko du. Hona hemen, esate baterako, José ARALAREN *Los adversarios de la libertad vasca (1794-1829)*, 1944ean idatzi zena. Kasu honetan ikus daitekeenez, historilariak historiarekiko duten harremana, alderdikoia da. Ikus, Menéndez y Pelayo-ren hitzak erabiliz Aralar-ek esaten duena aipatutako azken liburuaren sarreran: «El historiador clásico no aparta nunca los ojos de su patria, su raza y su partido, y esculpe a sus héroes predilectos en actitudes épicas y sublimes, y a sus enemigos y émulos los rebaja y los ennegrece a lo sumo les da la grandeza del mal»⁵⁷. Dena den, jarrera hau ulertzeko, kontutan eduki behar dugu gerra zibila amaitu zenetik bost urte besterik ez zirela pasatu.

IRUJOren *Inglaterra y los Vascos* (1945) liburuak, berriz, zera erakusten digu: batetik, atzeritarren (ingelesen) eritzia euskal instituzioei buruz, Ingalaterrako eta Euskal Herriko sistema demo-

kratikoaren antzekotasunak azpimarratuz, eta bestetik, nazioarteko testuinguruaren eta euskal arazoaren arteko loturak (ikus karlistadak).

Bestalde, gogora dezagun EKIN argitaletxearen inguruan argitaratzen diren liburuak, historia politikoarekin batera, erakundeen eta euskal zuzenbide foralaren historia ere lantzen dutela. Liburu hauen bidez, ohizko euskal gizarteak ezagutu zuen sistema politiko demokratikoa azpimarratu nahi da. Azken finean, diktadura, amaitzen denerako eskaini nahi den eredu demokratikoa⁵⁸. ARIZTIMUÑOrentzat kasu, eredu hau, demokrazia organikoaren antzekoa izango litzateke, euskal tradizioari jarraituz subjektu politiko, gizabanakoaren orde, familia bait da⁵⁹.

Diktadura-garaiko histori arloa definitzerakoan, ikuspegi aberztalea duten historilariak beren histori lanak, batez ere atzerrian argitaratzen dituztela, eta halaber, helburu *historizista* betetzen dutela esan genezake⁶⁰.

Euskal Herrian burututako historiografia

Eta Euskal Herriaren barnean zer gertatzen da? Histori lanak, zein ildotatik doaz? Nolabait hasteko, gogora ditzagun historiografia ofiziala, erudikzioa eta mezenasgoa.

Frankismoak bere intelektualak eta eruditak ditu eta Euskal Herriaren historia ere, berauek aztertuko dute. Nazionalismoa bizitza publikoan zanpatua dagoen une horretan, historiaren aztergai bihurtuko da. Bazirudien iragan eta gainditutako arazotzat jotzen zutela. Euskal nazionalismoaren historilari ofiziala Maximiano GARCIA VENERO izango da. Autore honek nazionalismoaren historia egiteaz gain, gai honi buruz idazten duen liburuen hasierako bi ataletan zehar, euskal historiaren sintesia egingen du⁶¹.

Bestalde, garaileen substratu kontserbadorearen historia Javier de IBARRAk (1948)⁶² egingo du. "A todos los que defendieran la unidad española en Vizcaya" eskaintzarekin hasten den liburu honek, berak ongi ezagutzen zuen oligarkiaren historia politiko, ekonomiko eta soziala azaltzen digu.

Korrante historiografiko ofizial honen helburua, Euskal Herriaren espainoltasuna frogatzean datza. Ildo honetatik joango dira

Francisco ELIAS DE TEJADAren lanak *El Señorío de Vizcaya* (1963) eta *La Provincia de Guipúzcoa* (1965). Liburu hauetan, historia instituzionalaren eta ideia politikoaren haria jarraituz, Foru-sistema Espainiako ohizko egitura politikoaren euskarriztat eta ardaztat joko du. Autore honen eritziz, Euskal Herrian bertan gertatu bait zen Europatik ekarritako zentralismoaren eta liberalismoaren aurkako borrokarik gogorrena.

Dena den, hemen ez da amaitzen histori lanen arloa. *Historia ideologizatu* honetatik kanpo, historilari eruditu eta lokalen mundua aurkitzen dugu, herrialde bakoitzean argitaratzen diren aldizkarien inguruan biltzen direlarik.

Aldizkarien artean, *Príncipe de Viana* (1940an sortutakoa) Nafarroan eta *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País* (1945) Gipuzkoan izango dira garrantzitsuenak. Halaber, kontutan hartu behar dira. *Zumarraga, Revista de Estudios Vascos* (1953-56) (Bilbo), *Boletín de la Institución Sancho el Sabio* (Gasteiz, 1957) eta *Estudios Vizcaínos* (Bilbo, 1970).

Iparraldeari dagokionez *Bulletín de la Société de Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* (1873), *Gure Herria* (1921), *Bulletín du Musée Basque* (1924) eta *Eusko Jakintza* (1947-1957) aurkitzen ditugu.

Aldizkari hauek direla medio, produkzio historiografikoa plazaratu egin zen eta euskal histori gaiak aniztu egiten dira, baina sarritan, anekdotetan eta aspektu lokaletan erortzen dira. Dena den, produkzio historiografikoa plazaratu arren, ez zen populuerengan barreiatu, kultura, minoria baten eskuetan zegoen eta.

Euskal Herrria ez da bere osotasunean aintzakotzat hartzen, sintesi lanak ez dira ugariak, hobeto esanda salbuespenak dira. Iparraldeko euskal munduaren sintesia Philippe VEYRINEk (1943)⁶³ egingo du. Ikuspegi askoz ere zabalago eta sakonagoz aurkeztuko du euskal etnia CARO BAROJAK bere *Los Vascos* liburuan (1949); horretarako metodo historiko-antropologikoa erabili zuen.

Unibertsitaterik gabeko une honetan historilarien lanen kalera-tzea, hainbat iniziatiba kulturalen esparru-barnean gertatuko da. Aipatzekoak dira 40 eta 50. hamarkadetatik hasita, *RSBAP*en iniziatiba eragileak eta hauen artean *Monografías Vascongadas* bilduma kasu, CIRIQUIAIN GAIZTARRO⁶⁴, ETXEGARAY⁶⁵, CHURRUCA⁶⁶, eta abarren lan monografikoak jaso zituen. Real

Sociedad Bascongada de Amigos del País erakundearen inizatiben artean, Grupo Dr. Camino de Historia Donostiarra aipatu behar dago, 1967tik aurrera bere *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián* ateratzen duena. Talde honen barnean J. Ignacio TELLETXEA historilariaren garrantzia nabaria da.

Iniziatiba eragileen artean, Aurrezki-Kutxen mezenasgoa ez dugu ahaztu behar. Esate baterako, RSBAP eta Donostiako Aurrezki-Kutxa Munizipalaren artean eraikitako Sociedad Guipuzcoana de Ediciones delakoaren barnean sortutako bildumen bidez, historiako hainbat arloren inguruan egin da lan: biografiak, ikerketa historikoak, tokiko historiak, eta Larramendiren lanen berreskuratzea⁶⁷. Baina dena den, histori gaien artean eta Aurrezki-Kutxaren eraginez; batez ere, *tokiko historiaz* idatzi da. Honela bada, 1969 eta 1971 artean idatzitako lanei esker Gipuzkoako herri eta herrixka guztiek dute beren historia idatzia.

Urte batzuk geroago, Gasteizko Aurrezki-Kutxa Munizipalak, Sancho el Sabio erakundearen barnean, *Biblioteca alavesa "Luis de Ajuria"* (1971) sortuko du, Arabako histori gaiak plazaratuz. Halaber, Bizkaian, Bizkaiko Aurrezki-Kutxak *Temas vizcaínos* bilduma (1975) sortzen du eta histori lanak, bereziki, sail gorrian (Historia y Tradición) argitaratuko dira.

Erakunde akademikoen faltan, Kutxak bihurtu ziren kulturaren dibulгатzaile, baina bakoitza bere probintziara mugatuz. Ildo honetatik abiatu ziren Diputazio batzuk, bereziki Nafarroakoa, *Temas de Cultura Popular* (1968) delakoaren bidez.

Maila sakonago batean, Nafarroako Diputazioaren erakunde kulturala den *Príncipe de Viana*-ren zerbitzu editorialean hainbat ikerlan historiko izan dira argitaratuak. Nafarroako lurraldea ardaztat, dutelarik bere lehen historiaz, protohistoriaz, erromartarkuntzaz, erdi aroaz eta karlistadez aritu izan dira, baina historiarentzat geografiari buruz egin diren lanak duten garrantzia ahaztu gabe. Maila apalago batean, baina ikerlanen ildotik abiatuz, Bizkaiko diputazioaren babesean ere argitaratu izan dira histori lanak.

Astiro-astiro, finantz erakunde eta instituzio publikoetatik at inizatiba pribatuak, hau da, *argitaletxeak* ere agertuko dira. Azpimarratzekoa da hirurogeigarrengo hamarkadan *Auñamendi* argitaletxeak hartzen duen bidea. Euskal Kulturaren berri emateko asmo nagusiaren barnean (Auñamendi bilduma), euskal historiak bere esparrua edukiko du eta inizatiba editorial honen sortzailea den

Bernardo Estornes Lasaren lanak, asmo hau betetzen saiatuko dira (Aralar saila eta *Historia General del País Vasco*).

La Gran Enciclopedia Vasca-ri dagokionez bere eginkizun editoriala, gerra-aurreko euskal historilari tradizionalen lanak berreskuratzea izan da batez ere, nahiz eta ikerlanen batzuk argitaratzera eman.

Euskal Herriko unibertsitaterik gabeko une honetan, histori lanak (ikerlanak) Unibertsitate pribatuetan (Deustu, Iruñea) eta Euskal lurraldetik kanpo dauden unibertsitateetan (Valladolid, Zaragoza, Pabe, Bordele) egingo dira.

Iruñeko Unibertsitatean kasu, historiaurreaz, foru-erakundeaz eta Nafarroako geografiaz (historia ekonomikoa sartuz), eta aro garaikideaz arituko dira. Deustuko Unibertsitatean berriz historiaurrea (Apellaniz), kristautasunaren sarrera, Bizkaiko historiografia eta Bizkaiko Jaurreria (Mañaricua) eta historia demografikoa eta ekonomikoa (Basas) izan dira gai nagusienak.

Kanpoko Unibertsitateetan ere ikertzen da Euskal historiaz, horra hor, Mercedes MAULEONen lana Bilboko populazioari buruz egindakoa⁶⁸ edo Iparraldean erakundeei buruz egiten direnak⁶⁹.

Garai honetako historilarien artean, hiru kasu seinalagarri aipatuko ditugu: José Miguel BARANDIARAN, J. CARO BAROJA eta José María LACARRA.

J.M. Barandiaranek⁷⁰, kasu, *historiaurrea*-ren ikerkuntz arloari jarraipena ematen dio, gerra-aurreko eta osteko munduaren arteko giltzarria bera izan bait da. 1953an Iparraldetik hegoaldera etortzen denean historiaurreaz aritzen ziren taldeak bere maisutza edukiko dute. Beraz, tradizio jarraikor bati esker eta erakunde (Sociedad de Ciencias Aranzadi, Donostia, 1947 eta Príncipe de Viana, Iruñea, 1940) eta aldizkari batzuren inguruan (Munibe, 1949, Estudios de Arqueología Alavesa, 1966) egin den lanagatik, historiaurre edo lehen histori arloa modu sistematikoan eta enpirikoan aztertua izan da⁷¹.

Kasu seinalagarri eta apartak aipatzerakoan, ezin dugu CARO BAROJA ahaztu. Aranzadi, Barandiaran eta Eguren-en taldean hezia, bere aztergai-mundua etengabe hedatzen joan da. Honela bada, bere ikerkuntza etnologiko, antropologiko, linguistikoa eta historia sozialeko eta abarretako lanei esker, euskal gizartea askoz

ere hobeto ezagutzen dugu. Gerra-ostean hasitako lan emankor honen metodologia gaur egun "*Nouvelle histoire*" en inguruan mugitzen diren historilariak segitu egiten dute. (Le Goff) (*Historia antropologikoa*).

Hirugarren pertsonaia seinalagarria J.M. LACARRA dugu. Barandiaranen lanek historiaurre arloari bultzada eman badiote eta C. Barojarenek Euskal Herriaren historia antropologikoa ezagutarazten badute, Lacarraren lanek *ertaroa* argitzen digute. Historilari honetaz zera esan genezake, errepublika-garaian foruen inguruan hasi zen lana mamitzen eta hedatzen joan dela erdi aro osoko nafar historia burutu arte⁷².

Beste belaunaldi batekoa den GARCIA DE CORTAZAR José Angelek beste hainbeste egin du Bizkaiko erdi aroari dagokionez. 1966an argitaratu zuen lanarekin XV. mendea aztertu ondoren, azken urte hauetan, talde baten laguntzaz, Bizkaiko erdi aroko historia orokorra burutu du⁷³.

Klandestinitatea: praxi politikoa eta eztabaida historiografikoa

Orain arte zera ikusi dugu idatzitako historiaren esparrua, nahiz eta egoera kulturala tamalgarria izan, neurri batean nahikoa zabala izan dela. Hau ikusita, galdera hauek bururatzen zaizkigu. Euskal historiaz idatzi den guzti hori herriak nola bereganatzen du edo produkzio historiografiko horren artean eta herriaren artean etena al dago? Hau da, ez ote da herria bera historiaren jabe?

Lehen, *idatzitako historiaz* mintzatu gara, baina historia bakarra hau ote? Ez dut uste. Euskal Herrian ahozko komunikazioaren bidez besterenganatu izan da *herri-memoria* eta hau, batez ere, famili barnean gertatu izan da. Eta bazen zer kontatu: oraindik memorian biziki zeuden gerra zibila eta gerra-osteko giro larria eta honez gain, bizimodu edo tradizio batzuk; atzerantz jota nazionalismoaren sorrera eta bere fundatzailearen bizitza, karlismoaren gorabeherak, etab., XIX. mendeko baino lehenagoko gaiak historia eta istorioen arteko mugetan kokatzen zirelarik.

Historilarien historiaz, hau da, dokumentuen azterketa zientifikoaren ondorioz egiten den garai baten birkreazioaz eta idazlan batean jasotzen denaz aritu gara batez ere. Baina, diktadura-garaian, adierazpide publikoak guztiz murriztuak egon arren, herriak historia herri-memoriaren bidez gordetzeaz gain, esperien-

tzian bertan eta protagonista gisa ere bizi izan du, gaur egun historiatzen ari dena alegia. Esperientzi eta asmo hauen berri, ezkutuan (klandestinoki) argitaratzen ziren dokumentuek ematen digute.

Historia, praxi politiko bilakatzen da. Praxi horren euskarri ideologikoak, etorkizuenan ipinitako helburu utopikoak eta lehenaldian errotutako helburu historikoak ziren. Honela bada, klandestinitatean sortzen diren taldeek, Euskal Herriaren historiari bere garrantzia eta lekua emango diote militante edo ekintzaileen formazioan. Halaber, irakaskuntz arloan ukatua zegoen historia hori, klandestinitatean zabaldurik egingo da eta elite akademiko mailan argitaratu eta ezagutzen zen produkzio historigrafikoaren zati bat bide honen bidez zabalduko da⁷⁴.

Klandestinitatean argitaratzen diren materialen ezaugarriak hauexek dira:

a) Dibulgazio-mailako Euskal Herriaren historiaren sintesiak egiten dira eta egoerak beharturik, sarritan, anonimoak izaten dira. Dena den, izen, talde eta aldizkari eragile batzuk aipa ditzakegu: *Arragoa* aldizkaria P.C. de Euzkadi (1964-1967) inguruan argitaratzen zena; Federico ZABALA, hitzaldien bidez euskal historiaren sintesia dibulgatzen aritu zena⁷⁵; Emilio LOPEZ ADAN "Beltza" *Gathazka* aldizkariaren partaidea, eta *Saioak* taldekoa⁷⁷. Beste talde batzuk gogoratzekoan Herri Gaztedi, J.O.C., etab. ezin ditugu ahaztu, talde hauen barnean euskal historiak hainbat material erabili bait zen⁷⁸.

b) 1968tik 1970-71rarte sortzen diren idazlan historikoak, praktikotasun politikoari begiratuz egindakoak dira. Lan hauen helburua, bada, ez da «para ensimismarnos en el pasado, sino para tratar a la historia como un banco de experiencias del que se pueden sacar leyes científicas válidas y de aplicación actual. Sencillamente no queremos la historia para probar algo, sino para que nos sirva»⁷⁹. Bestalde, herri-nortasuna agertu nahiaz egindako materialak dira.

c) Bataila eta gerren historia gainditu nahi dute bilakaera ekonomiko eta sozialaren historia eginez, baina bibliografiaren eskasiarekin topo egiten dute⁸⁰. Dena den sarritan, helburu horiek asmotan besterik ez ziren gelditzen eta historia datuen bilduma bihurtzen zen.

d) Helburuei dagokienez berriz, kontzientzia nazionala finkatzeko asmoz eginak daude. «Todo pueblo que toma una conciencia

nacional escribe su propia historia, original, rompe así con los moldes que le describen un sitio en la historia de la o de las metrópolis colonizadoras».

Baina kontzientzia nazional horren zentzuak erabat ezberdina izan nahi du, batez ere ezkerren ikuspegitik idazten direnetan: «hay historias vascas escritas, pero pertenecen a la época del nacionalismo burgués y se nos han quedado estrechas» diote. Beraz, *materialismo historikoaz* baliatuko dira, baina ikuspegi abertzaleari eutsiz eta idazten den historia neurri handi batean ideologizatua izango da.

e) Euskal Historiaren kronologian, bi etapa nagusi bereizten dituzte: 1) historiaurretik karlistaden amaierararte doana (1876) eta 2) 1876tik gaur egunerartekoa.

Honela bada, une honetan euskal historiak dituen aztergaiak ikusten baditugu honetaz ohartuko gara: Euskal Herriaren jatorriak baino garrantzi gehiago duela azken 100 urteotan galdu den historia berreskuratzeak eta historiaren "Guadiana" edo eten horri jarraipenaren bidez irteera emateak.

Azken urteotan euskal gizarteak asmoz eta ekintzez historia bat burutu du, trinkoa eta bizia dena. Hainbeste galera, hondamen eta eraldakuntza jasan ondoren, bada, guzti horren ondorioak eta norabideak aztertu beharra zegoen. Beraz, garaikidetasunak edukiko du histori gaien artean lekurik garantzitsuenak.

Historia hurbil horien artean karlistada-garaia dugu. Karlistadak lege zahar eta berriaren arteko etena suposatzen zuenez gero, konotazio ideologikoez beterik aztertuak zeuden. Mugimendu karlista lege zaharraren defentsan atera zenez historiografia liberalen erreakzionariorat jotzen zen. Beraz historilari nazionalisten zeregina karlisten zilegitasun historikoa eta, areago oraindik, aurrerakoitasuna frogatzea izan zen. Horretarako, zilegitasun hori lortzeko, zer hoberik Marx bera aipatzea baino⁸¹. Era honetara, klandestinitateko testu hauek borroka nazionalaren gidaritza hasiera-hasieratik ikusten dute herri xehearengan⁸².

Baina diktadura-garaiko polemika historiografiko eta politiko biziena, kolonikuntz gaiaren inguruan gertatu zen (Beltza, 1969)⁸³. Hau da, karlistaden ondoren Espainiako egitura-barnean sartzea, kanpoko indarren gainezarpenaren ondorioa izango litzateke, Beltzaren hipotesiaren arabera, baina Saioak taldearen eritziz, arrazoi nagusia euskal indar produktiboek kapital-pilatzearen bidez eraman duten itzulezinezko bidea izango litzateke⁸⁴.

Nolabait hipotesi hauek frogatzeko aztertu behar izan ziren gaiak produkzio-modu kapitalistaren ezarkuntzarekin zerikusia zuten. Honekin batera, aztergai hauek aurkitzen ditugu: industrializazioa eta bere ondorioak, hau da, langile-mugimendua eta nazionalismoa.

Gai hauen azterketak zientifikoa izan nahi du, baina ez historiarien metodo zientifikoa oinarritzen dena, materialismo historikoan baino. Honela bada, datu enpirikoak ikuspuntu politikoan arabera erabiliko dira, praxi politiko bideratzeko asmoz.

Helburu nagusia askatasun nazionala zela kontutan izanik, historiaren maisutza eta ildo jarraituz, askatasun hori burutuko zuen talde gidaria nor izan behar zuen eztabaidatzea izan zen gai garrantzitsuenetariko bat.

Euskal Herria eraiki eta defendatuko zuen burgesia nazionalaren hutsunea ikusten zen. Beraz, protagonismo historikoa eta iraultza nazionalaren gidaritza, proletargoaren eskuetan zegoela azpimarratzen zuten⁸⁵.

Arazo eta kezka hauen inguruan, gutxiengo batek 1970. hamarkadaren hasieran klandestinitatean eztabaidatzen zuen bitartean, historia akademikoaren arloan ere, gaiak, metodoak eta ikuspuntu teorikoak eraldatuz doaz. Annales eskola frantziarra, marxismoaren kontzeptu eta teoriak eta historia kuantitatiboa izango dira erreferentzia garrantzitsuenak historiografiaren eraberritze-prozesuan. Ikerketa-arloan, halaber une laburreko gertaera politikoaren historia egin ordez une luzean irauten duten erakundearen historia burutuko da⁸⁶.

Une luzearen ildoari jarraituz azpiegitura ekonomikoa eta berorren inguruan sortzen den erakuntza soziala aztertuko dira. Gizabanakoaren ordez, historiaren subjektua gizaki anonimoa izango da. Beraz, talde sozialak, giza multzoak, adin-taldeak, famili egiturak izango dira aztergai. Gizakia zenbaki bihurtuko da, datu historikoak ez dira izango batailak eta gerrateak. Berauen ordez, prezioek, lur-errentek, hamarrenek, kapitalek, eta abarrek osatuko dute narrazio historiko berria. Bestalde, historiak, beste disziplina sozialetatik (ekonomia, soziologia, etab.) jasoko ditu hainbat kontzeptu eta arazo teoriko. Arazo historiografikoaren artean, garapen ekonomikoa eta beronen mugak eta kosteak aztertuko dira. Produkzio-modu batetik bestera dagoen iraganbidea edo krisialdia, sistema feudaletik kapitalismora dagoena hain zuzen ere, izango da

historilarien artean eztabaida zuzpertzuko duen gaia. Krisialdiek, gatazka sozialek, iraultzek historiari beste zentzu bat emango diote. Jarraikortasunaren ordezt, eten historikoak azpimarratuko dira.

Historilariak, bere garaiko semea den heinean garai bakoitzeko gizarteak dituen kezka eta asmoak jasotzen ditu. Urrunean gelditzen dira lehenaldian kokatzen ziren ereduak, hau da, tubalismoaren eta kantabriartasunaren mitoak. Hauen ordezt, etorkizunean itxuratuko den gizarte berri baten mitoa da, gaur egun, aldaketa historikoari zentzua ematen dion gakoa, eta azken honi jarraituko diote 70eko hamarkadako historilariet. Azken bi hamarkada hauetako historia akademikoa (1970-1989) izango da hain zuzen ere *Jakin?*-eko zenbaki honetan sakonduko den gaia.

-
- 1 CARO BAROJA, J. (1943): *Los pueblos del Norte*. San Sebastián, 1977³. MAÑARICUA, A.E. (1971): "Los vascos vistos en dos momentos de su historia", in: *Primera Semana internacional de Antropología Vasca*, Bilbao, 263-304 orr.
 - 2 *Ibidem*.
 - 3 CASTRO ALAVA, J.R. (1971): *Historiografía. Los cronistas Moret y Alesón*, T. C. P., 118, Pamplona. 3-4 orr.
 - 4 CASTRO ALAVA, J.R. (1968): *D. Rodrigo Ximenez de Rada*, T.C.P. 30, Pamplona.
 - 5 Greziarren artean ere, Homeroren *Iliadak* antzinako greziarren berri ematen digu era poetikoan. Troia hiriaren kasuak, berriz, istorioa eta historiaren arteko muga zein etereo den agertzen digu.
 - 6 Erdi Aroko kantu hauen berri jakiteko ikus MITXELENA, L. (1964): *Textos arcaicos vascos*. Madrid: Minotauro.
 - 7 Araban: Cuaderno de Ordenanzas (1417, 1467); Gipuzkoan: Cuaderno de 1457, 1463; Bizkaian: Fuero Viejo (1452).
 - 8 GARCIA DE SALAZAR, Lope (1955): *Las Bienandanzas e Fortunas*. Edición por Angel Rodríguez Herrero, Bilbao. Ikus halaber CARO BAROJA, J. (1956): *Linajes y Bandos* (A propósito de la nueva edición de Las Bienandanzas e Fortunas). Bilbao: Diputación de Vizcaya.
 - 9 GARCIA DE SALAZAR, Lope: *1.a.*, XXI orr.
 - 10 Lehen historilariet egin zituzten lanetan narrazio belikoa nagusitzen bada ere, eta gaur eguneko historilariet honetaz ironiaz hitz egiten badute ere, CARO BAROJAk batailen historiak duen esangura bere neurrian ipintzen du: "Las luchas de los hombres son algo tan trágicamente constante que se puede afirmar que no hay Historia sin guerra ni guerra sin Historia". Éta Garibayren lana aztertzerakoan zera esaten du: "¿Por qué, en el siglo XVI Garibay iba a escribir una historia en que las luchas no tuvieran un especial relieve?... ¿Y cómo se tramaría la narración sino es contando con el tupido sistema de linajes reales que era la base de toda organización social? CARO BAROJA, J. (1972): *Los Vascos*

- y la *Historia a través de Garibay*. San Sebastián. 108-199 orrk. Caro Barojak Garibayez esaten duena, Lope García de Salazarrez ere berdin esan daiteke.
- 11 Gogora dezagun lurralde hauek, ez zeudela gaur egun ezagutzen ditugun eran eraturik.
 - 12 «Háblese esta lengua en Guipúzcoa, Vizcaya y Encartaciones, Alava, lo más interior de Navarra, y en Labort y vascos, y donde más perfectamente y con menos mestura de otras lenguas se habla es en Vascos». MARTINEZ DE ZALDIVIA, J. (1945): *Suma de las cosas cantábricas y guipuzcoanas* (1560?). Introducción de F. Arocena, San Sebastián. 12 orr.
 - 13 Ahaide nagusiez aritzen direnean.
 - 14 Ikus, esate baterako, lehen aipatu dugun *Suma de las cosas cantábricas y guipuzcoanas*.
 - 15 *Ikus POZA, A. de: Antigua lengua de las Españas*. (XVI. mendean argitaratua). ECHAVE, Baltasar de (1607): *Discursos de la antigüedad de la lengua cantábrica*, México, 1607.
 - 16 Arazo historiografiko honek ez du izan konponbiderik XX. menderarte, hau da, Aranzadi, Barandiaran eta Mitxelenaen lanak burutu izan diren arte. Gogoratu, halaber, Ramón MENENDEZ PIDALEn lanak: (1962): *En torno a la lengua vasca*, Col. Austral, Buenos Aires, 1962. Liburu honetan 1918tik aurrera argitaratutako lanak eskaintzen dira. TOVAR, A. (1950): *La Lengua Vasca*, San Sebastián.
 - 17 Kanpotarren eragin-eza defendatu bada ere XX. menderarte, azken mende honetan Bosch Ginpera, C. Baroja etab.en lanei esker, Euskal Herri hertsu baten aurrean Euskal Herri ireki bat aurkitzen dugu.
 - 18 Euskararen inguruan joera bateko eta besteko historilariak landu dituzten mitoez ikus TOVAR, A. (1980): *Mitología e ideología sobre la lengua vasca*. Madrid: Alianza.
 - 19 MAÑARICUA, A.E. (1973): *Historiografía de Vizcaya*, Bilbao. 17-193 orr.
 - 20 1895. urtean Labayru-k *Historia General del Señorío de Vizcaya* idazten duenean ohizko mitoak uzteko bidean da, baina bere historia idazteko era guztiz tradizionala da, analetan egiten bait du.
 - 21 BELA, J.P. (maulearra, 1709-1796): *Historia de los vascos desde su origen hasta 1748*, (12 liburu).
 - 22 DOM SARADOM (1785): *Essai sur la noblesse des basques. Pour servir d'introduction a l'histoire generale de ces peuples*. Pau.
 - 23 ZAMACOLA, J.M. (1818): *Historia de las naciones vascas*. Auch. LAZURTEGUI, J. de (1828): *Las provincias de Vizcaya, Guipúzcoa, Alava y Navarra ante el hemisferio de occidente*. Bilbao.
 - 24 D'IHARCE BIDASSOUET (1825): *Histoire des Cantabres ou des premiers colons de toute l'Europe, avec celle des basques leurs descendets directs, qui existent encore et leur langue asiatique basque. Traduite y reduite aux principes de la langue française*. Paris.
 - 25 BOIS-LE-COMPTÉ, E. (1836): *Ensayo histórico sobre las Provincias Vascongadas (Alava, Guipúzcoa, Vizcaya y Navarra) y sobre la guerra que actualmente sostienen*. Burdeos.

- 26 CHAHO, J.A. (1847): *Histoire primitive des Euskariens-Basques. Langue, poésies, Moeurs et caractère de ce peuple. Introduction a son histoire ancienne et moderne*, Madrid, Bayona.
- 27 BELSUNZEko Bizkondea (1847): *Histoire des basques depuis leur établissement dans les Pyrénées occidentales jusqu'a nos jours*. Bayonne.
- 28 CENAC MONCAUC, J. (1853-55): *Histoire des Pyrénées et des rapports internationaux de la France avec l'Espagne*. 5 vols. Paris; (1860) *Histoire des peuples et des états Pyreneens (France et Espagne)*. Paris.
- 29 GARAT, J. (1869): *Origines des basques de France et d'Espagne*. Paris.
- 30 BLADE, J.F. (1869): *Etude sur les origines des basques*. Paris.
- 31 JAURGAIN, J. (1898-1902): *La Vasconie. Etude historique et critique sur les origines du royaume de Navarre, du duche de Gascogne, Comtes de Comminges, d'Aragon, de Foix, de Bigorre, d'Alava, et de Biscaye, de la vicomté de Bearn et des grands fiefs du duche de Gascogne*. Pau.
- 32 Honez gain beste abiapuntua arazo historiografikoen inguruan gertatzen den historilarien arteko polemika izango litzateke, Blade eta Jaurgain-en artean burutzen dena kasu.
- 33 Gogora ditzagun XVII. mendeko historilari kritiko eta eruditoen artean Josep de Moret eta Francisco de ALESON kronistak eta, halaber, berauen lanak: *Investigaciones históricas de las antigüedades del Reino de navarra* eta *Anales del Reino de Navarra*.
- 34 *Sobre los Fueros de Guipúzcoa. Conferencias curiosas, políticas, legales y morales sobre los Fueros de la M.N. y M.L. provincia de Guipúzcoa*. Edición, introducción, notas y apéndices por J. Ignacio Tellechea Idígoras, Donostiako A.K.M., 1983.
- 35 Esate baterako, HENAOk idatzitako (1702) *Defensa Histórica de Guipúzcoa*.
- 36 LANDAZURIk idatzitako. *Historia del ilustre país vascongado comprendiendo sus tres muy nobles Provincias*.
- 37 XIX. mendean zehar Euskal Herriaz eta bere historiaz informazioa jasotzeko bide bat hiztegiarena izan zen. Horra hor, esate baterako, MIÑANO, S. de (1826-1829): *Diccionario Geográfico estadístico de España y Portugal*. Madrid. (11 bol.). MADDOZ, P. (1846-1850): *Diccionario geográfico-estadístico-histórico de España y sus posesiones de ultramar*. Madrid (10 bol).
- 38 Ikus GONZALEZ, T. (1829): *Colección de cédulas, cartas patentes, provisiones. Reales órdenes y otros documentos concernientes a las tres Provincias Vascongadas*. Madrid.
- 39 ZUAZNABAR, J.M. (1827-29): *Ensayo histórico crítico sobre la legislación de Navarra*. San Sebastián.
- 40 MARICHALAR, A. eta MANRIQUE, A. (1851-1872): *Historia de la legislación y recitaciones del Derecho Civil en España*. Madrid.
- 41 Horra hor Mateo Benigno de MORAZA, Pedro de EGAÑA, BARROETA ALDAMAR, Camilo VILLABASO etab.en lanak.
- 42 Gogora dezagun batez ere, PIRALA, S. (1852): *Historia de la guerra civil y de los partidos liberal y carlista*. Madrid.

- ⁴³ HUMBOLDT, W. F. (1975): *Los Vascos. Apuntaciones sobre un viaje por el País Vasco en primavera del año 1801*. Donostia: Auñamendi, CHAHO, J.A. (1836): *Voyage au Navarre pendant l'insurrection des basques (1830-1835)*, Paris. HENNINGSSEN, G.F. (1836): *Campana de doce meses en navarra y las Provincias Vascongadas con el general Zumalacarregui*, (1836). Edizio espainola: (1935): Madrid. MAÑE Y FLAQUER (1878-1880): *El oasis. Viaje al País de los Fueros*. Barcelona. Euskal idazleen artean gogora ditzagun ildo honi jarraituz Juan E. DELMASek burututako lanak: (1846): *Viaje Pintoresco por las Provincias Vascongadas*. Bilbao. (1864): *Guía Histórico-Descriptiva del viajero en el Señorío de Vizcaya*. Bilbao.
- ⁴⁴ YANGUAS Y MIRANDA, J. (1832): *Compendio de la Historia de Navarra*. San Sebastián.
- ⁴⁵ BECERRO DE BENGEOA, R. (1877): *El libro de Alava*.
- ⁴⁶ GOROSABEL, P. (1899): *Noticias de las cosas memorables de Guipúzcoa*. SORALUCE, N. (1870): *Historia General de Guipúzcoa*. Vitoria.
- ⁴⁷ LABAYRU, E. (1895): *Historia General del Señorío de Vizcaya*. Halaber, gorrora ditzagun beste lan batzuk: ARTIÑANO, A. (1885): *El Señorío de Vizcaya histórico y foral*; TRUEBA, S. (1872): *Resumen descriptivo e histórico del M.N. y M.L. Señorío de Vizcaya*. Bilbao.
- ⁴⁸ (1883): *Recherches Historiques sur le Pays Basque*. Bayonne-Paris. (Marseille, 1977).
- ⁴⁹ Adibide gisa ikus HEROS, M. de los (1848): *Historia de Valmaseda*. CAVANILLES, A. (1858): *Lequeitio en 1857*, Madrid; GOROSABEL, P. (1853): *Antigüedades de Tolosa*. Tolosa. VILLAVASO, C. (1868): *Historia de Durango y de sus más ilustres hijos*. Bilbao. BELASQUE, J. (1862-1875): *Etudes historiques sur la ville de Bayonne*, Bayonne. NADAL DE GUERRA, J. (1866): *Glorias navarras... historia detallada de Pamplona desde sus primeros tiempos*. Pamplona. DIAZ DE ARCAYA, B.J. (1850): *Vitoria y los 43 pueblos de su antigua jurisdicción*. Vitoria. RUIZ DE OGARRIO, T. (1857): *Manual descriptivo e histórico de la ciudad de San Sebastián, con un apéndice sobre los baños de mar*. San Sebastián. GOYHETCHE, L. (1883): *Saint-Jean-de-Luz. Historique et pittoresque. Annales et chronique*, Paris. CAMINO, J.A. (1892): *Historia civil diplomática-eclesiástica de San Sebastián*. San Sebastián.
- ⁵⁰ GUIARD, T. (1908): *Historia de la Noble Villa de Bilbao*. Bilbao.
- ⁵¹ TRUEBA, A. (1870): *Bosquejo de la organización social de Vizcaya*. Bilbao. BASTERRA, M. de (1894): *Vizcaya minera. Su historia, legislación foral y derecho vigente*. San Sebastián. ECHEGARAY, C. (1895): *Las provincias vascongadas a fines de la Edad Media*. San Sebastián. GUIARD, T. (1913-1914): *Hª del Consulado y la Casa de Contratación de Bilbao y del comercio de la Villa*. 2 vols. Bilbo. ALZOLA, P. (1898): *Monografía de los caminos y ferrocarriles de Vizcaya. Régimen económico y administrativo de Vizcaya y Guipúzcoa*. Bilbao.
- ⁵² Ikus Aranzadi, Eguren eta Barandiaran-en lanak.
- ⁵³ *Euskal Erria* aldizkaria Donostia 1880-1918. *Euskal Erriaren alde* 1911-1831. *Bulletin de la Societé de Sciencis, Lettres et Arts de Bayonne* (1873tik aurrera), *Gure Herria* (1921etik aurrera). *Bulletin du Musée Basque* (1924etik aurrera), Eusko Ikaskuntzaren aldizkaria izatera (1922an) heldu zen *Revista Internacional de Estudios Vascos* (1907-1936), eta aipatu erakunde horren inguruan egin-

- dako "Congresos de Estudios Vascos" delakoak eta *Yakintza* aldizkaria (1933-36). Honez gain aipatzekoa da Carreras Candi-ren zuzendaritzapean burututako lan kolektiboa: *Geografía General del País Vasco-Navarro* (1911).
- ⁵⁴ Ikus LASALA, F. (1924): *Ultima etapa de la unidad nacional. Los Fueros Vascongados en 1876*. Madrid. Autore honen eritziz Foruak ez dira galdu eraberritu baino. Joera liberal berdinekoa dugu BALPARDA, G. (1925): *Historia crítica de Vizcaya y sus fueros*. Madrid.
- ⁵⁵ Liberal foruzale ikuspegitik SAGARMINAGA, F. (1880): *Memorias históricas de Vizcaya*. Bilbao. (1892): *El gobierno y régimen foral del Señorío de Vizcaya*. (8 bol.). Bilbao. Ikuspegi nazionalistatik, ZABALA OTZAMIZ-TREMOYA (1909): *Historia de Bizcaya, 1793-1807*. Bilbao.
- ⁵⁶ EKINen argitaratzen diren liburuek, salbuespen batzuk ezik, batez ere historia politikoa lantzen dute. Hauen artean gogora dezagun SORALUZE, A. (1945): *Riqueza y economía del País Vasco*. Ekin. Buenos Aires.
- ⁵⁷ ARALARen aipatutako liburuan 8. orrialdean jasotzen den esaldi hau MENENDEZ PELAYOren liburu honetan agertzen da: *Estudios de Crítica literaria*, Madrid, 1915, I, 109-110 orr.
- ⁵⁸ ARIZTIMUÑO, J. (1942): *La democracia en Euzkadi*. Ekin. Buenos Aires. GALINDEZ, J. (1947): *El Derecho Vasco*. Ekin. Buenos Aires IRUJO, M. (1945): *Instituciones Jurídicas Vascas*. Ekin. Buenos Aires.
- ⁵⁹ ARIZTIMUÑO, 1. a., 264-270 orr.
- ⁶⁰ Ikuspuntu hau GALINDEZek honela azaltzen digu "La labor que nos toca realizar a los hombres de nuestra generación es precisamente tamizar el pasado, extraer lo esencial, y eterno, para fundirlo con aquello que de bueno aprendamos en otros países, en el crisol de nuestra libertad recobrada". "Quiero sintetizar el pasado, señalando sus líneas generales, para extraer las instituciones eternas, las que son consustanciales con la vida de nuestra raza; y soñar su proyección hacia el futuro inmediato", 1. a. pág. 12.
- ⁶¹ GARCIA VENERO, M. (1945): *Historia del Nacionalismo Vasco 1793-1936*, Ed. Nacional. Madrid. Hirugarren edizioan (1969) aipatu ditugun bi ataletan zehar (235 orrialde) erromatarkuntzatik XIX. menderarteko historia lantzen du. Gai bera baina ETAren jatorrietaraino luzatuz ikus PAYNE, S. G. (1974): *El nacionalismo vaco. De sus orígenes a la ETA*. Barcelona: DOPESA.
- ⁶² (1948): *Política Nacional en Vizcaya*. Madrid: Instituto de Estudios políticos.
- ⁶³ (1943): *Les Basques de Labourd, de Soule et de Basse Navarre. Leur Histoire et leurs traditions*. Bayonne: Musée Basque. (Arthaud, 1975). Halaber, BERNOVILLE, G.; ETCHEVERRY, M.; ITHURRIAGUE, J.; VEYRIN, Ph. (1956): *Visages du Pays Basque*. París.
- ⁶⁴ (1951): *Los puertos marítimos vascongados*. (M.V. n° 7-8). San Sebastián.
- ⁶⁵ ETXEGARAY, B. (1950): *El Derecho foral privado*. (M.V. n° 3) San Sebastián.
- ⁶⁶ (1951): *Minería, Industria y comercio del País Vasco*. (M.V. n° 6). San Sebastián.
- ⁶⁷ Ikus 34. oharra.
- ⁶⁸ (1961): *La población de Bilbao en el siglo XVIII*. Valladolid.
- ⁶⁹ DRAVASSA, E. (1950): *Les privileges des Basques du Labourd sous l'Ancienn Régime*. Burdeos. DESTREE, A. (1950): *La Basse Navarre et ses institutions de*

- 1620 a la Revolución. Zaragoza. NUSSY SAINT SAENS, M. (1942): *Contribución a un essai sur la coutume de Soule*. Bayonne.
- 70 Gogora dezagun autore emankor honen lanen artean euskal historiaurrearen berri ematen duten eta sintesi-lan ezagunak diren: (1934): *El Hombre primitivo en el País Vasco*. San Sebastián. (1953): *El hombre prehistórico en el País Vasco*. Buenos Aires: Ekin.
- 71 Euskal Historiaurrearen historiografiaz gehiago jakiteko ikus izenburu honekin J.A. MUJIKAK argitaratutako artikulua ondorengo liburu honetan: (1985) *Euskal Herriaren Historiaz, II, Historiaurrea*. Bilbo: EHU 19-39 orr. Halaber ikus J. A. AZKARATEk liburu honetan egindako aurkezpena, 7-11 orr.
- 72 LACARRA, J.M. (1975): *Historia del Reino de Navarra en la Edad Media*. Pamplona: Ed. Caja Ahorros de Navarra.
- 73 (1966): *Vizcaya en el Siglo XV*. Bilbao. GARCIA DE CORTAZAR, J.A.; ARIZAGA, B.; RIOS RODRIGUEZ, M.L.; DEL VAL, I. (1985): *Bizcaya en la Edad Media*. (IV bol). San Sebastián: Haranburu.
- 74 Ikus BELTZAREN lanetan ematen diren aipamen bibliografikoak. ¿Acumulación primitiva o colonización? izenburua duen lanean honako autoreen lanak aipatzen ditu: Tortella, Sanchez Ramos, Tuñon de Lara, Sarda, R. Anes, G. Anes, Vicens Vives, Tamames, Nadal, Larraz. Euskal bibliografia aipatzerakoan autore hauek agertzen dira: J. A. de Zamacola, C. Etxegaray, S. Mujica, Gorosabel, Alzola, Caro Baroja eta EKIN argitaletxeko liburuak.
- 75 ZABALAREN lana Auñamendi argitaletxeak argitaratu zuen, (1971): *Historia del Pueblo Vasco*. (2 t.). San Sebastián. Geroxeago, *Jakin*, *Etor* eta *Gero* argitaletxeen inguruan euskaraz argitaratu zen (1971-1975).
- 76 1970eko Otsailaren 26 eta 27an Donostiako Injineru-Eskolan AYESTARANek eskaintako hitzaldiaren transkribaketa mekanografikoak bere zabalkundea izan zuen euskal kulturgintzan zebilen jendearen artean. Bere izenburuak ("Historia de la lucha social en el País Vasco") zera adierazten digu: euskal historia aztertzeke orduan, beste kontzeptu eta ikuspuntu berrien erabilera hasia dela, historia sozial eta ekonomikoaren ikuspuntuak hain zuzen ere. Neurri batean, ildo honetatik joko du C. CABALLERO BASAÑEZek: (1973): *Introducción a la Historia de Euskal Herria* (apuntes privados), Escuelas Profesionales "Jesús Obrero". Vitoria.
- 77 Talde honen partaideak hauexek ziren: Jose Maria Agirre, Mikel Azurmendi, Jose Mari Eskubi, Mikel Etxebarria, M^a Ascensión Goenaga, Jabi Gorostiaga, Guti, Jose Angel Iturbe, Jose Mari Matxain eta Fermin Lizarraga.
- 78 Garai honetan erabili ziren materialak Koldo Tapia-ri esker eskuratu ditut.
- 79 "Breve síntesis de la Historia del Pueblo Vasco" makinaz idatzitako testu anonimoaren lehen orrialdean. Testu honen azalpena, batetik, 1964ean amaitzen denez eta bestetik eskaintzen duen bibliografia berriena 60. hamarkadako izaenez, 1965-1970, urteen artean idatzita dagoela suposatzen dut.
- 80 "A pesar de la abundancia bibliográfica existente sobre temas históricos vascos, son poquísimos los textos científicos, es decir aprovechables, porque muchos están escritos con el específico propósito de demostrar algo "a priori" lo que le lleva al autor a forzar los hechos según su imaginación. Además resulta que existen grandes lagunas en el conocimiento de la Historia del Pueblo Vasco, sobre todo en lo que se refiere al desarrollo económico y social" Régimen de la propiedad y estructuración social en la edad media, el desarrollo de la burguesía

- a finales de la edad moderna, etc. Estos vacíos llegan a ser tan oscuros, que hoy día conocemos mejor la Prehistoria del Pueblo Vasco que muchas partes de su Historia". *Breve síntesis de la Historia del Pueblo Vasco*.
- ⁸¹ Marx-en hitzak karlistadari buruz AYESTARANek jasotzen ditu bere hitzaldian: "El carlismo no es un mero movimiento dinástico y regresivo como se empeñaron en decir y mentir los bien pagados historiadores liberales; es un movimiento libre y popular en defensa de tradiciones mucho más liberales... que el absorbente liberalismo oficial", 12 orr.
- ⁸² "Los vascos se resisten a esta revolución burguesa, porque para ellos toma el carácter de colonización: los defensores de los Fueros ya no serán los burgueses, sino los campesinos y los artesanos que defienden su peculiaridad nacional". BELTZA (1969): "A los revolucionarios vascos".
- ⁸³ BELTZAren tesia testu honetan agertzen da, "A los revolucionarios Vascos", 1969.
- ⁸⁴ "Sobre el problema nacional vasco", *Saioak*, 2, abendua, 1970.
- ⁸⁵ Ikus 80. oharra.
- ⁸⁶ HUICI GOÑI, M.P. (1963): *Las Cortes de Navarra durante la Edad Moderna*. Madrid: Rialp. SALCEDO IZU, J. (1969): *La Diputación del Reino de Navarra*. Pamplona. MONREAL, G. (1974): *Las Instituciones públicas del Señorío de Vizcaya (hasta el siglo XVIII)*. Bilbao.

HISTORIOGRAFIA DE LA HISTORIA VASCA

HISTORIOGRAPHIE DE L'HISTOIRE BASQUE

Como introducción general a la Historiografía más reciente, el profesor López Atxura presenta una historia resumida de la Historiografía vasca desde la Edad Media hasta los años sesenta.

Desde la Baja Edad Media se constata la existencia de la misma, más tempranamente en Navarra (Ximénez de Rada, García de Eugui, Valencia, López de Orreaga, Príncipe de Viana) que en los otros Territorios Históricos (García de Salazar). Se describen los rasgos fundamentales de esta Historiografía medieval.

La Historiografía de la Edad Moderna (s. XVI-XVIII) es descrita como mítica, en razón de sus características particulares, por la temática abordada y por los procedimientos de trabajo seguidos. Figuras de indudable relieve y resonancia en la época se sucederán a lo largo de las generaciones modernas de historiadores vascos: Zaldivia, Garibay, Poza, Oihenart, Moret, Alesón, Bela, Larramendi, Zamacola, Iturriza, Landazuri, Fontecha, etc.

En el período de transición que va de comienzos del s. XIX a la Guerra Civil (1936), la Historiografía hará el camino que media entre aquella primera mitologizante y las posteriores obras de carácter científico. En las crisis del Antiguo Régimen no faltan publicaciones que inciden en el debate político (Llorente, Novia de Salcedo, Zuaznabar, etc.). El s. XIX ofrece un elenco importante de historiadores:

Yanguas, Becerro de Bengoa, Gorosabel, Labayru, Haristoy, Iztueta; y en una generación posterior Guiard, Sagarminaga, Echegaray, Campión, etc: El nacimiento del nacionalismo vasco estimulará también la producción historiográfica, con suerte variada (Estella, Lasa, Gurruchaga).

En la época de la Dictadura franquista las publicaciones provienen lo mismo del exilio, de la clandestinidad interna que de la producción estimulada o tolerada por el régimen vigente. La relación sería amplia, y en todo caso nos sitúa en el pórtico de la mejor producción de los años 70 y 80.

Comme introduction générale à l'historiographie plus récente, le professeur López Atxura présente une histoire résumée de l'historiographie basque du Moyen Age jusqu'aux années soixante.

Depuis le Bas Moyen Age, on constate l'existence de celle-ci, plus tôt en Navarre (Ximénez de Rada, García de Eugui, Valencia, López de Orreaga, Príncipe de Viana) que dans les autres Territoires Historiques (García de Salazar) les traits fondamentaux de cette Historiographie médiévale sont décrits.

L'Historiographie de l'Age Moderne (XVI-XVIII siècles) est décrite comme *mythique*, en raison de ses caractéristiques particulières dues à la thématique abordée et aux procédés de travail suivis. Des personnages indéniablement renommés de l'époque se sont succédés tout au long des générations modernes d'historiens basques tels que: Zaldivia, Garibay, Poza, Oihenart, Moret, Alesón, Bela, Larramendi, Zamacola, Iturriza, Landazuri, Fontecha, etc.

Dans la période de transition qui va du début du XIX siècle à la Guerre Civile (1936), l'historiographie fera le chemin existant entre cette première "mythologisante" et les autres travaux postérieurs à caractère scientifique. Pendant les Crises de l'Ancien Régime, les publications qui incitent au débat politique (Llorente, Novia de Salcedo, Zuaznabar, etc.) n'ont pas manqué. Le XIX siècle offre un éventail important d'historiens tels que: Yanguas, Becerro de Bengoa, Gorosabel, Labayru, Haristoy, Iztueta; et dans une génération postérieure: Guiard, Sagarminaga, Echegaray, Champión, etc. La naissance du nationalisme basque stimulera aussi la production historiographique avec plus ou moins de succès (Estella, Lasa, Gurruchaga).

Pendant l'époque de la Dictature franquiste, les publications proviennent aussi bien de l'exil, de la clandestinité interne, que de la production tolérée par le régime en vigueur. La relation sera grande en tout état de cause et nous place à l'orée des meilleures productions des années 70 et 80.